

# buzoia

## Urtarrilak 19-20

**BIZKAIA**

Bilbo (Alpino) ▪ Castro Valnera (1.707 m). Tel: 94-4337422.

Durango (Tabira) ▪ Alonsotegi, Ganekogorta (998 m), Santa Luzia (Laudio). Tel: 94-6203153.

Galdakao (Ganguren) ▪ Elurretara irteera. Informazioa: 94-4562326.

**GIPUZKOA**

Andoain (Euskalduna) ▪ Andoain, Buruntza, Urnieta. Haurrentzat ibilaldia. Tel: 943-592232.

Azkoitia (Anaitasuna) ▪ Azkoitia, Karakate, Elgoibar.

Errenteria (Urdaburu) ▪ Larunbatean mugen itzuliaren bigarren etapa: Argorri baserritik Uspuruko lepora. Igandean Navarrenkoxe, Arue. Santiago bideko lehen etapa. Tel: 943-527879.

Legazpi (Izadi-Zaleak) ▪ Aztien ibilbidea. Abarzuza, Salinas de Oro. Tel: 646-629552.

Villabona (Aizkardi) ▪ Villabona, Goizueta.

**NAFARROA**

Iruñea (Txantrea M.T.) ▪ Larunbatean Erlora (Izarraitz). Tel: 948-134484.

Iruñea (Nafarroa Kirol Elkarte) ▪ Moncayo (2.313 m). Gazteen ibilaldia. Tel: 948-224324.

## Urtarrilak 26-27

**ARABA**

Laudio (Goikogane) ▪ Oteiza, Eltxumendi. Tel: 94-6725021.

**BIZKAIA**

Durango (Tabira) ▪ Goimendiko eskia. Asteburu osorako. Tel: 94-6203153.

Sestao (Alpino Club) ▪ Valmala gaina, Los Castillejos (1.843 m), Trigaza (2.085 m), San Millan (2.132 m), Pineda de la Sierra. (Burgos). Tel: 94-4721379.

**GIPUZKOA**

Andoain (Euskalduna) ▪ Mundaka, Katilotxu (337 m), Sollube (686 m), Garbola (481 m), Burgoa (452 m), Bermeo. Tel: 943-592232.

Azkoitia (Anaitasuna) ▪ Zegama, Andraitz, Arantzazu.

Azpeitia (Lagun Onak) ▪ Asteburu osoko irteera Lintzara. Irteera goizeko 07:00etan, enparantza nagusitik. Prezioa: bazkideek 36 euro; bazkide ez direnek 45 euro. Informazioa: 943-812025.

Donostia (C.V.Camping) ▪ Larrunera Miramarko xendatik. Xeruenborda, Larrun, Larrun Txiki, Deskarga Handiko lepoa, Xeruenborda. Tel: 943-428479.

Donostia (C.V.Camping) ▪ Iraupen eskiko irteera asteburu osorako Nistos-Cap-Nestes estaziora. Tel: 943-428479.

Donostia (Antxeta M.T.) ▪ Uzturre. Tel: 943-422291.

Donostia (Herrera, Ametzagaina, Xabier, Donosti-Berri) ▪ Izaskun, Uzturre, Urdelar, Ipuliño, Berastegi. Tel: 666-745423.

Legazpi (Izadi Zaleak) ▪ Uzturre. Haurrentzat irteera. Tel: 646-629552.

Oiartzun (Girizia) ▪ Mendi asteareakin amaitzeko, Oiartzundik Ereñozura mendi ibilaldia. Elizalde, Iturriotz, Sarobe, Erreka, Iruritako txabola, Aldura, Malmazar, Urdaburu, Benta Txuri, Okala, Ereñozu. Sei orduko buelta. Tel: 943-493936.

## bidaztiaren orriak




*Pirineos* aldizkariaren urtarril-otsailetako zenbakia kalean da, mendikateko erraldoia ardatz duela: Aneto. Mendiaren konkista eta historia zabala; gailurrerako ibilbideak; glaziarra eta lora... ertz ugaritatik aztertu dute Aneto. Beste gaien artean Nafarroako Malerrekari buruzko erreportaia zabala eskaintzen du 25. zenbakiak, eta sai arreari buruzko erreportaia ere interesgarria da oso.




*Grandes Espacios*-en urtarrileko alea elurrari buruzko monografikoa da ia: joera eta modalitate berriak, estazioak, berrikuntzak... Horrez gain, Espainiako Mendikate Zentraleko bost gailur nagusietara neguko igoerak proposatzen ditu beste erreportaia nagusiak. Materialari dagokionez, pioletak, kranpoiak, erraketak eta negurako barruko arropa aztertu dituzte.



*Manuel Iradier* taldearen aldizkariko neguko zenbakian honako gai hauek jorratu dituzte: Santiago bidearen inguruko osasun aholkuak; Hiru Handiak argazki lehiaketako lan sarituen argitalpena koloretan; El Faro Haitzerako mendi ibilaldia; Euskadiko Lehen Mendi Lasterketaren kronika eta Europako Haitzetan Torrecerredora lasterka eginiko igoera.

Oñati (Aloña Mendi) ▪ Zumaia, Deba. Irteera 08:00etan Txaketuan. Ondoren bazkaria Lasturren.

Tolosa (Alpino Uzturre) ▪ Muskiz, Luzero Haitza (307 m), Serantes (451 m). Tel: 943-652789.

Urretxu (Goierri K.E.) ▪ Besabi, Adarra (817 m), Leuneta (878 m), Goizueta.

**NAFARROA**

Iruñea (Gaztaroa) ▪ Mendi asteareakin amaitzeko, Panticosara ibilaldia. Tebarrai mendia (2.961 m) igoko da. Irteera goizeko 06:00etan. Tel: 948-143419.

Iruñea (Nafarroa Kirol Elkartea) ▪ Valdeperillo, Lado Frio. Errioxa. Tel: 948-224324.

Lizarra (Lizarra M.T.) ▪ Larunbatean Tebarrai (2.961 m), Panticosatik. Tel: 948-552235.

## emanaldiak

### Urtarrilaren 18tik aurrera

Iruñea (Nafarroa K.E.) ▪ Edurne Pasabanek *Everest 2001* bideo emanaldia eskainiko du gaur gaueko 20:00etan, taldearen egoitzan (Jarauta, 78).

Iruñea (Gaztaroa) ▪ Mendiko astea. Astelehenean, hilak 21, Iñaki Garreta, Iñaki Alaiz eta Juantxo Cisnerosek Changui Tower paretan zabaldutako Itxoiten bideari buruzko proiekzioa emango dute. Astearteań, Matias Salazarrek Erronkariarren artzain bideari buruzko emanaldia euskaraz. Asteazkenean, Carlos Paunerrek K-2ko proiekzioa eskainiko du. Ostegunean Eneko Pouk Pirinioetako muturreko eskiari buruzko ikus-entzunezkoa emango du eta ostiralean Barañaindik Melbournera bizikletan eginiko bizikleta bidaiaren proiekzioa emango du Luis Diego Diezek. Proiekzio guztiak San Jorge Ikastetxean, ilunabarreko 20:00etan.

Oiartzun (Girizia) ▪ Mendiko astea. Astelehenean Ina Rufok *Transeuropa 2001* ikus-entzunezkoa emango du. Astearteań Giriziaren mendi irteerei buruzko emanaldia. Asteazkenean *Gosainthan (Tibetarren bideetan)* Joxe Mari Arbelaitz *Baxerri*-ren eskutik. Ostegunean Iñaki Otxoa de Olzak *Himalayako langilea* proiekzioa emango du, eta ostiralean, hilak 25, Edurne Pasabanek *Everest 2001* bideo emanaldia. Emanaldi guztiak 20:00etan, udaletxeko pleno aretoan.

Gasteiz (Estadio Aretoa) ▪ Astelehenean, hilak 21, ikus-entzunezkoa emango du Kepa Lizarraga medikuak. Gaia: *Mendiko raid, lasterketa eta zeharkaldiak, ekologia eta osasuna, edo guztiz kontrakoa?* 20:00etan Vital Kutxa Fundazioaren aretoan.

## ikastaroak

### Urtarrilak 19-20 eta 26-27

Bilbo (Bizkaiko Goimendi Eskola) ▪ Neguko tekniken ikastaroa. Prezioa: 193 euro. Ikastaroak %65eko subentzioa izango du 20 urtetik beherakoentzat eta %25ekoa 21 eta 26 urte artekoentzat. Tel: 94-4431734.

Iruñea (Nafarroako Goimendi Eskola) ▪ Alpinismo ikastaroa. Informazio gehiago Federazioaren bulegoetan (Paulino Caballero, 13). Tel: 948-427848.

### Urtarrilaren 21etik 25era

Bilbo (Bizkaiko Goimendi Eskola) ▪ Mendiko eski ikastaroa. Informazio gehiago: 94-4431734.

### Urtarrilak 24, 26, 27

Donostia (C.V.Camping) ▪ Elurretako erraketekin ibiltzeko ikastaroa. Hilaren 24an teoria taldearen egoitzan eta 26-27an praktikak Belagoa edo Zurizan. Informazioa: 943-428479.

### Urtarrilak 26-27

Donostia (Mendiak eta Herriak) ▪ Goimendia neguan. Hastapena. Ikastaroa Telera mendigunean izango da. Bestetik, mendiko eski ikastaroa Panticosan. Informazioa: 948-513233.

### Otsailak 2-3 eta 9-10

Donostia (Gipuzkoako Goimendi Eskola) ▪ Izotzetako alpinismo ikastaroa (Hastapena) eta izotz eskalada (II. maila). Ikastaroa Telera mendigunean eta Viella inguruan izango da. Izotzean eta korridoreetan igoera errazak edo zailtasun ertainekoak egiteko oinarrizko ezagupenak irakatsiko dira. Informazioa eta izen emateak: 943-461440. Ikastaroaren zuzendaria: Jon Ugarte (945 445202)

## bestelakoak

### Urtarrilak 14tik 18ra

Hernani (Mendiriz Mendi) ▪ Bigarren eskuko materialaren merkatu txikia. Elkartearen bulegoak (Iturregi plaza, z/g) zabalik izango dira arratsaldeko 19:30etik 21:00etara. Informazioa: 943-332745.

**oharra:**

Urte berria dela eta, 2002ko ibilaldi, proiekzio, ikastaro eta abarren egutegia ahalik eta azkarren bidali Buzoia atal honetan lekua izan dezaten.
**EUSKALDUNON EGUNKARIA (MUNDUMIRA gehigarria). Gudarien etorbidea z/g. 20140-ANDOAIN mundumira@egunkaria.com**



Changui Tower horman zabaldutako Itxoiten bideko irudia.

## Mendi jardunaldiak Iruñean eta Oiartzunen

Datorren astelehenetik igandera mendi jardunaldiak izango dituzte Iruñean eta Oiartzunen, Gaztaroa eta Girizia Mendi Taldeek antolatuta hurrenez hurren. Bietan proiekzio interesgarri ugari. Iruñean, esaterako, Iñaki Garreta, Juantxo Cisneros eta Iñaki Alaizek Pakistango Changui Tower paretan zabaldutako Itxoiten bideari buruzko proiekzioa ikusi ahal izango da, baita Carlos Paunerrek K-2ra eginiko igoerakoa ere. Oiartzunen, berriz, besteak beste Transeuropa'2001 espedizioaren ikus-entzunezkoa emango du Ina Rufok, eta Joxe Mari Arbelaitz Baxerri-k, Tibeteko ibilerei buruzkoa. Jardunaldien informazio zehatza emanaldien atalean duzue.